

KOADERNOA

Trump, Rosalia eta
zuritasun atea **MIJO LIZARZABURU > 9**

OSASUN LEIHOA: Kristalezko
eskubideak seismo politikoen
garaian **> 20**

2026ko uztailaren 25a | XX. urtea • 988. zenbakia
0,75 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**ANDONI OLARIAGA: «MOTORRA ETA
MARTXAK ALDATU BEHAR ZAIZKIO
ABERTZALETASUNARI» > 10**

Andoni CANELLADA | FOKU



4



14



**Zhou Enlai, Txinako iraultza
osteko lehen ministro
karismatikoa** 04

**Andoni Olariaga, filosofoa: «Gaur
egun posible da nazio-estatu
uniforme bat eraikitzea?»** 10

**Hik jai eta nik lan: Naia Basterra,
udalekuetako begiralea** 14

**Analisia: Espainol ez-nazionalista
baten adierazpena** 18

**Osasun leihoa: Kristalezko
eskubideak seismo politikoen
garaian** 20

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



18



20

SINADURAK:

- 03 **Lur Albizu Etxetxipia:**
Laurogeita hamar
- 07 **Amaia Ballesteros**
- 08 **Ula Iruretagoiena Busturia:**
Beroaldia gurekin
- 09 **Mijo Lizarزابuru:** Trump,
Rosalia eta zurtasun atea
- 16 **Josune Perez:** Barne
munduaren ezagutza
euskararen bitartez Euskal
Herriko hegoaldean
- 17 **Maidar Iantzi Goienetxe:**
Ispilu jolasa
- 17 **Xabier Mikel Errekondo:**
Kuraia maitasunari!
- 22 **Nagore Barrena**
Oruechebarria: Milioika zelula,
ikusiezina agerian



{ asteari zeharka begira } **Lur ALBIZU ETXETXIPIA**

Laurogeita hamar

Erraz esaten da laurogeita hamar, baina mundu oso bat ere bada. Laurogeita hamar urte bete dira egun hauetan espainiar Estatuan gobernu errepublikanoaren aurka eta, oro har, emantzipazioaren aurka abiatu zen estatu kolpe hartatik.

Sanferminak joan zaizkigu eta joan ziren 1936koak ere; 7Krako idatzi zuen erreportajea kontatu zigun Pello Guerrak duela pare bat aste. Izen propioak agertzen ziren: Mola, Garcilaso, Fanjul, Benito, Rodeznoko kondea kolpea prestatzen edo hartara batzen, eta jaia bera ere horretarako arobetxatzen. Toki esanguratsu batzuk ere bai: Gaiarre antzokia, Euskal Jai, Gazteluko plaza. Leku batzuek antzeko jarraitzen dute, beste batzuk desagerrarazteraino eraldatu eta bota dituzte azken mendean. Sanferminen inguruko kronika txikia ere bazekarren Guerrak; entzierroen edo dianen ordutegia desberdina zen, festen iraupena ere bai.

Uztailaren 18 hartaz geroztik, Iruñean bertan presatu zen kolpe hura eraman zuten aurrera kolpistek, eta Errepublikari eta gobernuari leial izan zirenek ezin izan zuten askorik egin. Nafarroan ez zen gerra-fronterik egon, eta ehunka eta ehunka pertsonaren etorkizun hurbilak bide-bazter batean amaitu zuen, tiroz hilda. Beste askok ihes egin behar izan zuten beren herrietatik, eta beste hainbesteri lapurtu zieten zeukaten guzti-guztia.

Mundu berri baten aldeko hazia ereiten saiatu ziren milaka eta milaka pertsonaren aurkako kolpea. Ez dugu sekula jakinen nola joanen ziren azken laurogeita hamar urteak estatu kolpeak porrot egin izan balu, Euskal Herrian bertan ere zein botere eta nazio emantzipazio maila izanen genukeen. Baina badakigu nola egin zuen Euskal Herriak itzaropenetik ikararako bide lazgarri hura. Hori baita, azken finean, faxismoa: ametsak nola edo hala lurperatu nahi dituen mugimendua, edozertarako prest dagoena.

Joan dira laurogeita hamar urte. Eta orain, zer?

Espainiar Estatua abila izan da amnesia kolektiboaren bilaketan; diktadorea hil ondoren ere hemen ez da egon ez erantzukizunik, ez aitortzarik, ez hausturarik. Botere-guneek eta botere-konfigurazioek berdin jarraitu dute. Faxistak demokrata altxatu ziren, gaue-tik goizera.

Euskal Herrian, azken hamarkada luzeetan, aldiz, memoria historikoari begirako lan eskerga egin da. Eremu askotatik eta ahalik eta informazio, lekukotza eta dokumentazio lan handiena eginez. Leku batetik edo bestetik, ehunka izan dira bide horretan ekarpen txiki eta handia egin dutenak: lekukotzak bilduz, unibertsitateko memoria-fondoa, literaturaren bidez kontatuz, hezurak lurpetik aterata, omenaldiak eta hilarriak eginez.

Ez dugu sekula jakinen nola joanen ziren azken laurogeita hamar urteak estatu kolpeak porrot egin izan balu, zein nazio emantzipazio maila izanen genukeen

Galdera da hemendik aurrera nola izanen garen kapazak egin den horri guztiari jarraipena emateko, baina bereziki eta batez ere gertatutakoa transmititzeko, interpretazioak egiteko, historia errepika ez dadin lan egiteko eta itzaropen izpi haien jarraipen izateko. Memoriak, eta horretaz –gustatu ala ez– badakigu zerbait Nafarroan, atxikimendu eta lotura garrantzitsuak egin dituzte, ezinbestekoak eta borrokarako helduleku direnak. Nire ustez, beste molde batzuk asmatuko dira eta memoriarako beste tresna batzuk existituko dira –Iruñeko memorial antifaxista, adibidez–.

Urrunegi daude beharbada ehun urte, baina faxismoa eta mugimendu erreakzionarioak ez dira atzoko gauza. Memoria ere bada haiei aurka egiteko bide eta herri berri baten alde borrokatu zirenei omenaldi. •

Bizitza epiko bategi biografia epiko bat merezi du. Eta Walden Bello kazetari filipinarrak “Counterpunch” agerkarian iruzkindutako Chen Jianen “Zhou Enlai. A Life” liburuak lortu du. Txinako Gobernuaren eta Alderdi Komunistaren artxi-boak arakatzuz, mendekotasun inperialetik eta feudalismotik Txina askatzeko borrokan bigarren pertsona garrantzitsuenaren, superpotentziaren oinarriak finkatu zituen militantearen, biografiarekin.

Munduak bere lan diplomatikoa ezagutzen du gehienbat, Pekinera 1972an AEBko presidente Richard Nixonen bisita historikoagatik batez ere. Baina hori bezain garrantzitsua nazioarteko antzeztokian egin zuen debuta izan zen, 1954ko Genevako Konferentzian, ordezkaritza estatubatuarraren buru John Foster Dulles antikomunista porrokatuari aurre egin zionean. Gerra frontean geldialdia hautsi ez bazuen ere, lorpen nabarmena eskuratu zuen: Indotxinako lehen gerraren amaiera, Viet Minheko porrot militarren ondoren Asia hego-ekialdean frantziar inperioaren erorketa ekarri.

Geneva eta gero, Zhouren hurrengo geltokia Indonesia izan zen, Hegoalde Globaleko Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduaren sorrerako Bandungo Konferentzia historikoa. Bere samurtasun eta malgutasunak pertsonalitate guztiz ezberdineko liderrak limurtu zituen, hala nola, Nehru Indiako lehen ministroa edo herbeheretar kolonialismotik Indonezia askatu zuen Sukarno. Gaztetxo zela Zhouk antzerkia biziki maite zuen, pieza ezberdinak jokatzea, eta agian hortik etor



LIDER HANDIETAN HANDI

Zhou Enlai: beti Maoren bigarren ala pieza bateko Txinako buruzagi totala?

HISTORIA / Mikel ZUBIMENDI

Zhou Enlai Txinako iraultza osteko lehen ministro bikain eta karismatikoa, soilik Maoren aurrean amore ematen zuen hierarkia politiko bateko kidea izan zen. Maoren kontrapisua eta maoismoaren aurpegi argitsuena, ezinbestekoa izan zen estatu kapitalismo potentea eta diskurtso instituzional komunista lotu dituen Txinaren eraikuntzan.

dakioke, bere biografiaren egilearentzat, «munduko aktore onenetakoaren» aitorpen ofiziosoa. Arte eszenikoak lantzeko aukera eman zion antzerkiak eta hori oso erabilgarria izan zuen bere karrera politiko eta diplomatikoan.

«FRENCH CONNECTION»

Bere belaunaldiko beste asko bezala, XX. mendeko lehen hamarkadetan Mendebaldeko potentziek eta Japoniak Txina eragin-eremutan banatzeko egindako saioek kontzientziatu eta erradikalizatu zuten Zhou. Japoniak liluratu zuen, Mendebaldearen pare jartzeko ahalgina egin zuelako. Baina, aldi berean, Japonia gorrotatu zuen, barru-barrutik, Txina kolonizatzeko maniobregatik. Japonian urte eta erdi pasa zuen.

Frantziakoa giro hurbilagoa suertatu zitzaion, eta bertan Zhouren abertzaletasunak norabide aldaketa erradikala eman zuen. Izan ere, iraultzaile asiarren haztegia zen Frantzia; pila bat zeuden bertan erbesteratuta, eta, jakina, elkarrekin harremanean gainera. Frantzian ezagutu zituen hurrengo urteetan paper oso garrantzitsua jokatu zuen Zhu De eta Deng Xiaoping, baita Ho Chi Ming iraultzaile vietnamdarra ere. 1924an, Europan lau urte pasatu ondoren Txinara bueltatzean, Zhou behin betiko komunista egin zen. Bere herria hondamenditik ateratzeko bidea Txinako eta beste herrialdeetako iraultzak gidatzeko Moskun 1921ean sortutako Hirugarren Internazionalera, Komintern mitikora, lotuta geratu zuen aurrerantzean.

SHANGHAIK PEKINERA

Txinara bueltatu ondoren, Zhouren zeregin nagusia 1921ean sortutako Txinako Al-

**Iraultzaile asiarren haztegia zen Frantzia.
Bertan ezagutu zuen Zhuo Enlaik armetan kide
izan zuen Deng Xiaoping «Lemazain Txikia»,
baita Ho Chi Ming iraultzaile vietnamdarra ere**

derdi Komunistako Shanghaiko antolatzaile gorenaz izatea izan zen, bai eta Kominternek bultzatutako fronte nazional batua osatzen zuen Kuomintang alderdiarekin lotura lanak egitea ere. Bere trebetasunen erakusgarri, Zhouk Koumintangen infiltratu zituzten espioien inteligentzia sarea zuzendu zuen.

Txinako kostaldeko hiri handietatik kanporatuta, Alderdi Komunistak barnealdean kokatu zituen base edo «eremu gorriak». Ordurako, Zhouk erabaki politiko eta militarrek hartzen paper oso garrantzitsua zuen. Atzera-egitealdi horretan, Zhouk Mao Zedong ezagutu zuen, eta elkarrekin lanean hasi ziren. Bizi osoko elkarlan baten hasiera izan zen, Zhouk gloria eta makina bat zailtasun ekarri zizkiona. Maorekin askotan haserretu zen, baita Martxa Luze ospetsuan ere. Baina aitortu zuen Mao «jenio militarra» zela, eta krisiak maneiatzen ere artista zela. Chen Jian historialariak idatzi bezala, «krisiei aurre egiteko Maok izan zuen trebetasun apartaren lekuko izan zen Zhou. Horrek Maorekiko obediencia bultzatu zuen».

Alderdi Komunistak Yan'an-en atzera egitean, Zhouk Mao jarraitu zuen Moskuren mendeko izateari uzteko erabakian, baita Wang Ming Kominterneko agentearen kontrako kanpaina ere. Yan'an-etik Chongqing-era, gobernu abertzalearen hiriburura, bidaiatu zuen, Japoniaren kontrako gerran fronte bateratuko parte zen Kuomintang alderdiaren aurrean Maoren mezulari bezala. Bertan, ordezkari estatubatuarrei komunisten irudi positiboa ematea lortu zuen, Chiang Kai-shek militar nazionalistaren inguruan zutenaren oso bestelakoa –ustel, egoskor eta inultzat zuten–.

**Mao ez zen tiranoa Chen Jian historialariarentzat.
Bere biktimak ez zituen nahita sakrifikatutako
peoitzat, sozialismora trantsizioa azkartu
nahiaren zorigaitzeko albo kaltetzat baizik**

Zhouren diplomaziak, dudarik gabe, Japoniaren porrotaren osteko gerra zibilean, AEBk Chiang Kai-sheken alde parte ez hartzea eragin zuen, 1949ko urriaren lehen Maok Pekinen Txinako Herri Errepublikak aldarrikatu zuen arte.

ALIANZA ZAILA

Zhouz aritzea, nahitaez, Maoz aritzea da. Maoren nortasuna, beste hainbat biografiek ere aipatzen dutenez, ez zen megalomano edo tirano batena. Egia da, egia denez, biografia-
ren egileak Maok bultzatutako politika sozial eta ekonomi-

koek milioika biktima eragin zituztela aitortzen duela, baina ez ditu nahitara sakrifikatutako peoitzat hartzen, baizik eta sozialismorako trantsizioa azkartu nahiak ekarritako zorigaitzeko albo kaltetzat.

Martxa Luzea baino lehenago, «kontrairaultzaileak» desagerrarazteko zorigaitzoko kanpaina baten ondoren, Maok Stalinen bidea alboratu zuen; hots, aurkariak hiltzearena. Leialtasun pertsonala funtsezkoa izan arren, are funtsezkoagoa zuen Maok, autokritika zorrotz baten ondoren, gainontzeko buruzagien ikuspegiak Txinak hartu beharreko norabidearen gainean berak zuenarekin bat egitea.

Eta zein zen Maoren bisioa? Herrialdea –eta batzuetan mundua– «etengabeko iraultzan» murgiltzea. Maoren ara-

zoa ez zen iraultzaileak soka motzean lotzen ez zekiela. Alderdiaren arazoa zen ez zegoe-la Mao desafiatzeko nahiko zilegitasun zuen beste inor. Eta Txinaren arazoa zen Maok sekulako prestigioa zuela ia 30 urtez nazio askapenerako borroka buruzagi goren bezala. Eta borroka horrekin eta Maorekin batera, herriak aldarrika zezakeen: «gu, txinatarrok, zutik jarri gara».

Zhou Maorekin liluratuta geratu zen, baina ez itsututa. Hasieratik ulertu zuen iraultzan parte hartzen jarraitzeko, Txinaren bere bisioa Maorenarekin lerratu behar zuela, hartara autokritika umiliagarriak egitera makurtu behar bazuen ere Mao bere zintzotasunaz kontentzitzeko.

Zhouk eta Maok ulertu zuten hirugarren kontu bat ere: Au-

Ezkerrean, Zhou Enlai hitzaldi bat ematen; behean, Txinako Alderdi Komunistaren buruzagiak Martxa Luzearen amaieran (Yan'an, 1935). Ezkerretik eskuinera, orduko buruzagi gazteak: Zhou Enlai, Mao Zedong, Zhang Wentian eta Bo Gu.
Wikipedia-Public Domain





rrerako Jauzi Handia (1958-1960) eta Iraultza Kulturala (1966-1976) kaotikoak bultza-tzen segitu arren, Estatuaren oinarrizko zerbitzuak mantendu egin behar ziren. Maok ulertu zuenean bere helburu kontraesankorrak bakarrik Zhouk itxuratu zitzaizkela, bere postuan mantendu zuen, Mao-ren emazte Jiang Qing eta “Lauko Banda” Zhouren izena zikintzen saiatu arren. Zerbitzuak eta elikagaien banaketa funtzionarazteko Zhouren determinazioari esker, baita Guardia Gorriko fakzio ezberdinak elkarren aurka borrokan zebiltzanean ere, herritar xume askoren errespetua eta estimua irabazi zituen.

ZHOUREN DILEMAK

Liu Shaoqi, Lin Biao eta Deng Xiaoping babesten saiatu zen Zhou, sozialismoarekin zuten konpromisoagatik eta kudeake-

ta trebetasunagatik. Baina, antza, Mao zirraratuko zuen autokritika “zintzo” bat egitera ez zituen konbentzitu. Chen Jian historialariaren arabera, Zhouk gertuko kideen kontrako kritiketan parte hartu zuen, baina Mao limurtzeko egin zuen, gehiegizko bortizkeria batekin trata ez zitzaizkion. Liu Shaoqi politikoki salbatzen saiatu zen, baina azkenean Iraultza Kulturala aldarrikatu eta Maoren lidergoa defendatu zituen.

«Bere kontzientziarekin guztiz kontraesankorra izan arren, azkenean Liu sakrifika-tu zuen. Hala ere, hori Zhouren bizitzaren eta karrera politikokoaren une iluna izan arren, badaude arrazoiak politikari jazarri eta ekaitzaren erdian harrapatutako norbait bezala Zhou barkatzeko. Izan ere, ekaitz baten erdian harrapaturiko itsasontzi txiki baten modukoa zen Zhou, edozein

unetan urperatzeko arriskuan zegoena. Are, Zhouren ekarpenik gabe, ehunka milioi bidaiari zituen Txinaren itsasontzi erraldoia urperatu ahal izango zen».

Zhou ez zen bakarrik bere zenbait kamarada babesteko ez-gai izan, oso gertuko izan zituen pertsonak salbatzea ere ezinezko izan zuen: berak eta emazteak asko maite zuten Sun Weishi alabaordea, eta bere anaia Zhou Enshou. Sun kartzelan hil zen eta Enshou prebentziozko atxilotzean jarri zuten. Zhouren heriotzaren eta Iraultza Kulturalaren ondoren, bietatik inor ez zuten politikoki birgaitu. «Bi kasuotan, Zhouk, Txinako lehen ministro bezala, bere pertsona maiteak nola kartzelatu zituzten onartu behar izan zuen. Hori izan zen Zhou Enlairen tragedia. Zentzu zabalagoan, baita Maoren Iraultza Kultural Proletario

Maorekin liluratu zen Zhou Enlai, baina ez itsutu. Ulertu zuen iraultzak aurrera egiteko bere bisioa eta Maorena lerratu egin behar zirela, autokritika umiliagarrietara makurtu behar bazuen ere

Zhou Enlairen Lau Modernitateen Programari ekin zion Deng Xiapingek, 40 urtean Txina munduko bigarren potentzia (edo lehengoa, nondik begiratzen zaion) bihurtzeko planari

Handiaren eta iraultza txinatar osoaren tragedia ere».

ONDAREA

Herriak zion maitasuna sentitzeak kontsolatuko zuen agian. Lehen unetik, 1976ko urtarrilaren 11n bere heriotzaren berria zabaldu eta Pekinen eta Txina osoan manifestazio izugarri jendetsuak egin ziren «Lehen Ministro kutunari» maitasuna erakusteko.

Antza, “Lauen Banda” manifestaziook asko kezkatu zen eta Zhouren izen ona zikintzen saiatu ziren «kapitalismoaren aldekoa» zelakoan. Seguru asko, halere, ez ziren larregi kezkatuko, uste zutelako beren boterea indartu egingo zela behin Mao erretiratu ondoren. Gutxi espero zuten, baina, heriotza zigorrekin kartzelatuko zituztela, nahiz eta gero hogeitako zigorrekin konmutatu zigorra. Are, zeinek eta bi aldiz purgatua izan eta Parisen pasatako egunetatik Zhouren armetako kide izandako Deng Xiaoping “Lemazain Txikiak” zuzendutako purga medio!

“Lauen Banda” bistatik kendu ostean, Zhou Enlaik asmatu Lau Modernitateen Programa garatzeari ekin zion Deng Xiapingek. Plan hori 40 urteko denbora errekorrean Txina munduko bigarren potentzia (edo lehengoa, nondik begiratzen zaion) bihurtzeko ezinbestekoa izan da.

Gaurko Txinako agintarientzat Zhou Enlai marxista eta iraultzaile handia izan zen, politikaria, estrategia militarra eta diplomazialaria, besteren artean.
Public Domain

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Beroaldia gurekin

Izuak jo du. Bizi dugun udararen bero arraroa, «bero garaikidea» deituko duguna, askorentzat jasanezina izan da. Beroaldia pasako bada ere, beroaren esperientzia honek arrastoa utzi du. Inpaktu kolektibo handikoa izan da. Askorentzat esperientziak utzitako ikasketa eta eginkizuna zera da: beroaldia gogorra izan da gure espazioak ez daudelako ongi egokituak beroaldietara. Nagusiki etxebizitzak eta hainbat aktibitate ekonomikoren espazioak egokitu beharko dira eta dagoeneko haizagailu, eguzki-oihal eta aire girotutako eskaerek eztanda egin dute. Beroa denon ahotan dago eta sortu duen arduragatik komunikabideak arkitekto eta hirigileei galdezka ari dira, medikuari gaixotasunaren sendabideagatik galdetzen zaion antzera, ea zer den egin behar den datorren beroaldia hobe igarotzeko.

Egun berotsuek argi utzi dute etxeak berotik nola babesitu badakigula, erabiltzaileok neurri batean espazioaren klima-konfortaren kudeatzaile garela. Eguzkiaren erradiazio zuzena ekidin dugu lehenik, eguzki-oihalik ez badugu pertsianaren bitartez. Helburua: eguzki-izpia leihoaren beiratera iristea ekiditea. Beroa etxe barnera sartzea eragotzi behar dugu dauzkagun trikimailu guztiekin. Ilunpetan bizitzeko egunak, etxea inoiz baino babeslekuago bihurtuz. Agian, ohartu gara behin beroa etxean sartuta, aire-korronteen laguntza behar dugula ateratzeko. Korronteak sortzen ibili gara orientazio desberdinetako leihoak parez pare zabalduz. Ekintza horiei guztiei “arkitektura babesleku pasibo” deitzen zaie, eta pergola, galeria, patio, aire-tximiniekin batera joaka daiteke eraikinen formaren eta diseinua-


ren bidez etxearen freskatze aukerak eta eguzki-babespenak ahalbidetzeko.

Egia dena da, etxe askoren fatxada-paretari dagokionez, paretaren osaeraren arabera zailago eutsiko zaiola beroari, zenbait isolamendu sintetikorik behin berotzen direnean ez diotelako beroari eusten eta barnera sartzeko ezaugarri fisikorik ez dutelako. “Inertzia termiko” esaten zaio tenperatura gordailu izateko ezaugarriari, gure paretak galdu dutena. Egunean zehar pilatutako beroa gauez gutxinaka botatzeko gaitasuna duten materialak alboratu ditugu.

Kaleetan ere esperientzia argia bizi izan dugu. Ikusi dugu zuhaitz askok osatzen duten multzoaren azpiko itzala freskagarria dela, uraren presentziak giroa hobetzen duela eta aire-korronteak beroa arintzeko lagungarria izan daitezkeela, asfaltaturiko edo azulejaturiko terraza zabalek bero irradiazioaren isla egiten dutela eta bero kantitatea handitzen dela (bero-irla efektua). Ez dugu hirigile bat behar jaki-

teko zein kale edo zonetan den konfort klimatikoa hobeagoa eta zein faktorek eragiten duten positiboki eta negatiboki.

Noiz ahaztu genuen udaran bizi, egon eta lan egiteko, espazioak eguzkiaren erradiazio-tik babestu egin behar direla! Klima kontuan hartzen duten herrien eta eraikinen adibideak nonahi ditugu, baina teknologiak posible egiten du arkitekturaren eta klimaren arteko harremana lasotzea, eta horrela egin dugu azken mendeko arkitektura-erabakietan. Aire girotuak salbatuko gaituelakoan. Kontrara, baliteke datozen urteetan bioklimatikako jakintza berreskuratzeke goraldia etortzea. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ koaderno } Mijo LIZARZABURU

Trump, Rosalia eta zuritasun ateoia

Erlijioaren presentzia publikoaren hazkundera gero eta nabarmenagoa da Mendebaldeko gizarteetan. Fenomeno konplexua da, eta askotariko esparruak zeharkatzen ditu: ezkerria eta eskuina, pop kultura eta estatu-politikak, espiritualtasun indibidualizatua eta fundamentalismo antolatua. Gorakada horren barruan, itxuraz elkarrengandik urrun dauden joerak nahasten dira: gazterik apenas duten elizak eta TikTok islamofobia zabaltzen duten nerabe kristauak, aita santu antiabortista, homofobo eta “ezkertiar”-arekiko debozioa, askapenaren teologiari aurre egiteko indartu zen ebanjelismoaren hedapen geldiezina Hego Amerikan edo Israel Jainkoak hautatuko herria dela aldarrikatuz justifikatzen diren genozidioak. Fenomeno horiek guztiak elkarren artean lotuta badaude ere, egungo erlijio-berpizkundera behar bezala ulertzeko, ezinbestekoa da haien arteko aldeak bereiztea.

Bereizketa hori egiteko, hiru kategoriatan proposatzen ditut, jakinda ez dutela fenomenoak agortzen: estatuaren eta erlijioaren arteko aliantza autoritarioa, neo-sinestun mediatikoak, eta erlijio-praktika antirrazistak. Kategoriatan horiek ez dira tipologia zorrotz edo behin betikoak, baina artikuluetan motz honetan erlijioaren gorakada azaltzeko eta haren barruko joera nagusiak bereizteko baliagarriak direla uste dut.

Estatuaren eta erlijio antolatuen arteko aliantza autoritarioa Trumpen MAGA mugimenduak, Netanyahuaren estatu genozidak edo Milei Argentinako presidentek egiten duen karguaren erabilerak ordezkatzeko dute. Kontua ez da presidentek horiek sinestunak diren indibidualki, baizik eta botere politikoa eta erlijioa uztartzen dituztela estatuaren autoritatea, nazionalismo ultraeskuindarra, politika baztertzailerak edo ekintza militarrek justifikatzeko. Trumpen 2025ean White House Faith Office sortu zuen kristauen aurkako erasoak ezabatzeko, nazionalismo kristau ebanjelikoa estatu politika bihurtuz. Hego Amerikan gero eta ugariagoak diren eskuineko gobernuak ere joera hori jarraitzen dute, agenda moral kontserbadorea antikomunismoarekin, militarismoarekin eta neoliberalismoarekin uztartuz. Sionismoak bere genozidioa justifikatzen du munduko komunitate judu askoren interpretazio erlijiosoen aurka, eta Milei bezalako jarraitzaile patetikoek harro babesten dute doktrina presidentek karguaren bidez proiektu ideologiko eta geopolitiko krudelenak sakralizatuz.

Neo-sinestun mediatikoak, ordea, beste gauza bat dira; *celebrity* horiek fedea identitate, estetika, sendabide pertsonal edo marka kultural gisa erakusten dute. *New Age* logikaren ondorengoak dira, erlijioa beren testuinguru historikoetatik askatu, esperientzia espiritual indibidual bihurtu eta merkatuak kontsumitzeko produktu bihurtzen dutenak. Horren adibide dira “Motomamia” zena moja iluminatu plantak egiten, Ernesto Castro filosofoaren biraketa espiritualak eta aita santuari idazten dizkion amodio eskutitzak, edo Amadeo Llados *gymbro* iruzurgilea jainkoaren bidea jarraitzea bere 2.000 euroko kurtsoa erosi eta *burpee*-ak egitea dela predikatzen.

Horren guztiaren beste aldean komunitate arrazializatuaren praktika antirrazistak daude. Praktika horiek komunitate arrazializatuak, kolonizatuak edo migratzaileak sare erlijioso eta espiritualetan antolatzen direnean gertatzen dira, eta oroimena gordetzeko, komunitatea saretzeko eta asimilazioari aurre egiteko balio dute. Horren adibide dira territorioaren defentsan dauden indigenen espiritualtasuna, estatu kolonialak jazarritako komunitate afrikarren erlijioak (maiz kristautasunean kamuflatzen zirenak errepresioa ekiditeko), Ameriketako Estatu Batuetako eskubide zibilen aldeko mugimenduak lotutako eliza beltzak, edo diaspora musulmanak Euskal Herrian ramadan garaian antolatzen duen komunitatea islamofobiari aurre egiten. Praktika horiek ez dira automatikoki emantzipatzaileak, kritika behar dute eta badaukit komunitate barruko ahots asko daudela horretan, komunitateon benetako transformazio bat bilatzen, eta ez gutako askok egiten dugun bezala arrogantzia zurutik mespretxatzen.

Beharrezko ikusten dut azaldutako hiru kategoriak bereiztea, erlijiosotasunaren itzulera erreakzionarioa borrokatu behar dugulako, baina horren aurrean “erlijio oro txarra da” esatea sinplekeria arrazistan erortzea delako. Estatuaren eta erlijioaren arteko aliantza autoritarioa, neo-sinestunen marketina eta komunitate zapalduen praktika kolektiboak zaku berean sartzeak ez du erreakzioa ahultzten: haren arrazakeria eta logika kolonialak indartzen ditu. Ezker antirrazisten zeregina ez delako fedea abstraktuki epaitzea, baizik eta praktika bakoitzak zer botere-harreman sostengatzen edo desafiatzen dituen aztertzea kritika feminista, antirrazista eta antifaxista zentroan jarritz. •

«Euskaldunok ez dugu asmatu gure zapalkuntza goitik behera berrezaugarritzen»

Zergatik eta zertarako euskaldun?» galdetu zuen Joxe Azurmendik 1967an. Galdera sinplea zirudien, baina sekulako kalapita piztu zen. Gabriel Aresti, Paulo Iztueta, Juan San Martin, Joseba Intxausti, Julen Kaltzada, Xabier Lete, Mikel Azurmendi eta beste zenbait tek galderari heldu zioten eta eztabaida mamitsu bezain garrantza izan zuten («Ez du eskubiderik horrelako galderak egiteko», aurpegiratu zion Mikel Azurmendik, oso era adierazgarrian).

Ia 60 urteren buruan, abertzaletasunak beste astinaldi bat behar duelakoan, udako ikastaroetan galdera hori berarratu dute Iratzar Fundazioko kideek: «Zergatik eta zertarako abertzale?»». Beste kide batzuekin batera, Andoni Olariaga (1984, Berriz) ibili da horren antolaketan, eta horretan sarkontzeko harekin bildu gara. Jarraian duzue emaitza, *spoiler* txiki batekin: Munduko Futbol Kopa zeharka baino ez da aipatzen, abertzaletasunaren erronkak horren aurretikoak eta haraindikoak baitira.

Uda ikastaroetan abertzaletasunaren erronkez hausnartu duzue. Abertzaletasunaren ulerkeraren arabera analisi eta korapilo oso ezberdinak ateratzen dira, ordea. Zuen kasuan, nola ulertzen duzue abertzaletasuna?

Oinarria da gizakia izaki sozial bat dela, komunitatean bizi dena eta kulturalki espresatzen dena. Nazioa gizakia sozialki eta kolektiboki espresatzeko identitate kolektibo hori da: nonbaiten jaiotzen zara,

eta badituzu lotura batzuk, sare bat, kultura bat, eta abar.

Baina ez da berdina estatu gabeko nazio batean edo estatua daukan nazio batean jaio-tzea. Guztiok daukagu identitate abertzalea, baina gero batzuek identitate politikoan berea ukatzea baimendu dezakete, eta beste batzuk derrihortuta gaude azpimarratzera, ez daukagulako estatu bat.

Hor sartzen da abertzaletasun politikoa, guri interesatzen zaiguna. Abertzaletasun politikoa da komunitate horrentzako helburu batzuk dituen. Normalean identitate politiko guztiek kohesioa bilatzen dute, modu desberdinetan bada ere. Beraz, abertzaletasun politikoa mugimendu bat da, ikuspegi kolektiboa duena, helburu batzuk dituen eta bere kolektiboa kohesionatzeko galdera batzuei erantzun behar diena: nor den kohesionatu nahi duena, non egingo duen, nola...

Zuek «zergatik eta zertarako» galderatik abiatu zarete. Zergatik? Beste galdera batzuetatik ere abiatu zitekeen.

Nik uste galdera guztiak direla politikoak, baina politikoen "zertarako" da. Euskal Herrian ziklo aldaketa egon zenean, galdera gehiago izan zen "nor" edo "nondik", zerk ematen digun legitimitatea. Zertarako horrek fokua helburuetan jartzen du. Eta hori garrantzitsua da, ze, identitate politiko bat sortzerakoan, dituzun helburuen arabera atxikitzen da jendea: identitate politiko bat, hain zuzen, kontziente den, mobilizatzen den, afektatzen den eta horren arabera artikulatzen den mugimendu bat da.

Dena den, beti kontuan izan behar da galdera horrek baldintzatzaile handi bat daukala, eta da estatu gabeko nazioa garela. Debate gehienak ez genituzke izango estatu bat izango bagenu. Horrek konplexu eta galga asko ekartzen dizkigu, baina abantaila bat ere ematen digu: borroka desberdinak artikulatzeko eta zertarako nahi dugun ondo pentsatzeko izugarrizko kontzientzia politikoa eta sentsibiltatea izatea. Irekitasun bat, esateko «historia horrela izan da, baina ez du zertan hala izan». Estatua eta herria mila modutan eraiki daiteke, eta zertarako galderak hor jartzen gaitu.

Ikastaroan aipatzen zenuten 60ko hamarkadatik hona baldintza afektiboak asko aldatu direla. Zertan? Zein da egungo «humus» sozial hori?

Baldintza afektiboak aipatzean esan nahi genuen ez garela ari baldintza afektibo inozo batzuen gainean lanean. Afektiboak ulertu behar dira emozional-arrazional bezala. Aurrekoa ez da dikotomia bat: politikara mugiarazteko edo ez afektatzen dizun baldintzapena da.

Abertzaletasun modernoaren sorrerara joz gero, kontuan hartu behar da garai hori utopien garaia zela. Mundua aldatzea posible zela uste zen. Ez zegoen larrialdi klimatikorik, ez zegoen zaintza krisi globalik... –egon bazegoen, baina ez zegoen kontzientzia hori–. Hor badago garaiko eslogan bat, dena laburtzen duena: "Izan gaitezen errealistak, egin dezagun ezinezkoa".


Hori aldatu da. Mundu mailan, beheranzko espektatiben garaian, iraultzak baino kon-

ANDONI OLARIAGA AZKARATE

FILOSOFIA

Ideien borroka ardatz, Lapiko Kritikoan, Iratzar Fundazioan eta beste hainbat eremutan ibili izan da, hainbat artikulua eta liburu argitaratuz. Abertzaletasunaren motorra eta martxak eraberritzeko apustua egiten du.

Mikel URDANGARIN IRASTORZA



Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

trairaultzak ditugu –erreakzio autoritario global bat, etorkizuna iluna aspektu guztietan...-. Gainera, Euskal Herrian gatazkaren parametro guztiak aldatu dira. Gatazkaren aurreko zikloan identitatea izugarrizko talkatik sortzen zen, bestetasun oso argi batetik, eta horrek identitatea modu oso argian sortzen eta birproduzitzen zuen. Ziklo historikoaren aldaketarekin hori lausotu egin da.

Subjektua politizatzeke moduak ere erabat aldatu dira: oso gorputzetik egiten dira. Hori egiten asmatu duten mugimenduak badaude, baina abertzaletasuna oraindik ez da erabat horren parte. Uste dut abertzaletasuna berritzeko kontuan hartu behar den elementuetako bat dela: gorputzean min batzuk sufritzen ari gara, baina ez dizkiegu izenak jarri, Cira Crespok esan bezala.



Eta behar duguna da gorputzetik hasi. Gure belaunaldikoei eta goragokoei hori kostatu egiten zaie –gu oso burukoak gara–, eta gazteei ez hainbeste, hor badago belaunaldi arteko amildegi bat.

Mugimendu feminista afektatua dago, orduan mobilizatzen da. Gure mugimenduak iraganeko afektuen erresonantzia dauka, eta hortik Euskal Herria lepoan eramatearen betebeharrak historiko hori... Belaunaldi berriek hori hartu dute lepoan, baina gasolina horrek ez du askoz gehiagorako ematen. Motorra eta martxak aldatu behar zaizkio, softwarea aktualizatu behar da.

Garaia lotuta, zerbaiten parte izan beharra ere sumatzen da. Hor badago potentzialik?

Gizakia izaki soziala denez, kohesio eta pertenezia horrek babesleku bat ematen ba-

dio, krisi garaietan babesleku hori inoiz baino inportanteagoa izaten da. Ez da kasualitatea okerren dauden herrietan Munduko Kopan beren herriak irabazteak klase zapalduenei ematen dien poza. Zergatik? Horrek funtzionatzen duelako: «Ni horren parte naiz eta zerbait irabazten ari naiz».

Mugimendu autoritario eta atzerakoi guztietan nazioaren identitate antropologiko eta kultural lokartu horren politizazio bat egin da, esateko «hemen gaude, eta gu gara inportanteak, besteen gainetik», besteak izan barnekoak edo kanpokoak. Aldiz, Europara begiratzen baldin badugu, estatua gabeko nazioetan ezkerretik egiten ari da, eta proiektu arrakastatsuak daude –Irlanda, Eskozia...–.

Hemen beti asmatu da ondo egiten. Ez dira gutxietsi kohe-

sozial, musikal, artistiko eta abarrak. Orain horri beste buelta bat ematea tokatzen da.

Testuinguru horretan, Euskal Herrian nazio pultsua nahi baino ahulago sumatzen dela adierazi zenuten. Zein zentzutan?

Ikuspegi dialektikoa behar dugu, ez da “zuria edo beltza”. Nire erantzuna da: ahul dago, bai eta ez. Nazio ikuspegia sartzen baldin badugu, baieztapen horrekin ezin da esplikatzen Nafarroan azken 10-15-20 urteetan gertatu den loraldi abertzailea: hor aldaketa antropologiko eta politiko izugarri bat egon da, nafarzaletasuna bera disputatu egin da eta elementu aurrerakoi eta euskaltzaleekin lotu. Baieztapen horrekin Ipar Euskal Herrian gertatu dena ere ezin da azaldu: begira nola zegoen Ipar Euskal Herria orain urte batzuk eta orain nola dagoen. Egia da termino elektoraletan neurtzen dela, baina ez bakarrik: lurrari, etxebizitzaren defentsari eta abarri lotutako hainbat mugimendu sozial daude. Eta hor dago Araban gertatu dena ere: Araban izugarrizko aldaketa sozial eta politikoa egon da, duela hogeitau urte pentsaezina zena. Orduan, hori kontuan hartuta, tesi hori ez da betetzen.


Aldiz, pultsu nazionala baldin bada Euskal Herriaren motxila, estatu gabeko nazioa den heinean, bizkar gainean hartzen duen jendea eta kontzientziaren maila, hori esango nuke krisian dagoela. Prekaritateak eragin du, ez dago lehengo militantziarik –onera-ko ere bai, ze, hori askotan txarrerako aipatzen da soilik–, orain aisiari garrantzia ematen zaio, lan eskubideei... Nire ustez, pultsua, ildo horretan, badago krisian.

Hala ere, hor ere badaude ñabardurak. Kontuan hartu behar da jende batek herri baten alde bizitza eman duela. Derrepente topatzen du, agian, hori ez dela gehiengoa, baina orain gehiengo zabalago bat dago, beste modu batean, herriaren alde lan egiten ari dena, igual haien bizia eskola edo bestelako proiektu jakin bategatik emango dutenak.

Horri lotuta, bada beste elementu bat: Euskal Herrian mugimendu feminista eta queer mugimenduak praktika abertzaleak dira? Nire ustez, bai. Zer moduz dago pultsua hor? Ze nik herri guztietan ikusten ditut mugimenduak, eta balio batzuekin Euskal Herria instituzionalizatzeko eta materialki eraldatzeko mugimenduak dira. Orduan, agian pultsio nazionala irakurtzeko ikuspegi klasiko hori birpentsatu egin behar da: zer sartzen dugu praktika abertzalearen barruan pultsu nazionala ahul dagoela esateko? Igual mugimendu sozial batzuk praktika abertzaleak direla kontsideratzen hasi behar dugu. Abertzaletasun banal edo inplizituagoak izan daitezke, baina izan badira.

Beraz, nazio pultsuaren indarra edo ezintasuna ezin da adierazle bakarraren arabera neurtu, ezta?

Hori da. Gaur egungo gizartean edo politikagintzan elementu oso kontraesankorrak daude. Nik uste posible dela oso positiboak diren elementuak hartzea eta horrekin irakurketa bat egitea, eta kontra-koa ere bai. European eta Euskal Herrian dilemak erakitze-ko joera daukagu: edo oso gaizki gaude edo oso ondo gaude. Baina, agian, ira-



kurketa justu bat eginez, ez da ez bata ez bestea.

Adibidez, Nafarroako hiri-buruan, Iruñean, ezker abertzalea normaltasun osoz gobernatzen ari dela ikustea, “Nafarroa ez da Euskal Herria” gezurtatzen duen baieztapen material bat da. Urteen poderioz errealitate material bat sortzen ari da, normaltasun

«Iruñean ezker abertzalea normaltasun osoz gobernatzen ari dela ikustea ‘Nafarroa ez da Euskal Herria’ gezurtatzen duen baieztapen material bat da»

bat, eta ikuspegi errotu bat sendotzen du: hori Euskal Herria da. Horrek kristoren potentziala dauka.

Gu ez gaude ohituta errealtatea elementu horien bidez irakurtzera. Eta hala egitean jabetzen gara errealtatea motel aldatzen dela, aldaketak ez direla hain azkarrak... Nik uste dut hor badagoela garaiko bes-

te elementu bat: azkartasuna eta gauzak arin lortu beharra. Eta arin lortzen ez badira, frustrazioa. Hori Kataluniako *proce*-ean ikusi da, adibidez. Eta noski, hori gero nork gestio- natzen du?

Espektatibak eta frustrazioak oso gaizki gestionatzen dituen gizarteak ditugunez, Euskal Herrian ez gara ausartzen pauso handiak ematera. Nahiago du- gu pauso txikiak eman, pixka- naka oinarritzko kanpamentu hori igotzen joateko.

«Esan ezin denaren mina», hori da aipatu zen beste korapilo nagusietakoa. Zer esan nahi du horrek?

Ez dugu asmatu gure zapal- kuntzak goitik behera eta behetik gora berrezaugarri- tzen. Gure zapalkuntzaren identifikazio klasikoa izan da “bi estatuk zapaltzen gaituz- te”, lege bati apelazio bat eginez. Egia da pentsalari an- tikolonialen logikak ere pre- sente izan ditugula, baina bai feminismotik, bai dekolonia- litatetik beste pauso bat eman dute: oso gorputzetik, emakume bezala munduan duzun lekua eta jasaten ditu- zun zapalkuntzak ulertzeko corpus oso bat osatu dute, egituratik hasi eta eguneroko zapalkuntzetaraino.

Euskaldunon kasuan ere, mespretxuak, gutxiespenak, ikusezintasuna... Estruktura oso bat da. Adibidez, “identita- rio” hitza entzuten dudanean, niri barruan dena nahasten zait. Zapalkuntza oso baten es- truktura osoa laburtzen du hitz horrek: «zu identitarioa eta ni normala». Orduan aber- tzaletasunak behar du pen- tsatu, hitzak jarri. Hori ez da egiten ideien laborategi ba- tean, hori egiten da prozesu politiko batean eta jendeare-

«Abertzaletasuna
ala
abertzaletasunak?
Gaur egungo
munduan posible da
nazio-estatu berdin
eta uniforme bat
eraikitzea? Barruan
diferentziak
badaude, zeintzuk
dira horiek?»

kin batera. Nik uste dut gauza horiei kolektiboki erantzuteko behar hori handitzen ari dela eta ari garela. Koska hori falta da. Horrek ahalduntze bat emango liguke, izugarriko indar bat, horri aurre egiteko gure estrategia zein izan behar den jakitea.

Dekolonialitatetik eta feminismotik abertzaletasuna bera ere interpelatu izan da. Zein izan da interpelazioa eta nola erantzun beharko litzateke?

Asimetria estruktural historiko bat seinalatzen dute: kontuan hartu behar dituzu emakumeak emakume izateagatik, bai herri honen errelatoan, bai herri honen eraikuntzan, bai herri honen estrategian... Dekolonialitatetik berdin. Eta horrek badauka beste dimentsio bat: gu herri bezala ez gara izan potentzia kolonizatzaile bat, baina potentzia kolonizatzaile baten onuradun bai. Zapaldu eta zapaltzaile gara, gizonak bezala.

Ulertu behar dena da oso kontuz ibili behar dugula erabiltzen ditugun kontzeptuekin. Ez da «bueno, ba kolonizatzaile erabiliko dugu», hitzek bere karga sinbolikoa eta garrantzia dutelako. Hortaz, ariketa honetan egon behar da aitortza bat eta birkokatze bat: jarraitzen dugu zapalduak izaten, baina hemen artikulazio bat egon behar da, eta artikulazio horren erpin guztietan ez gara zapalduak. Horrek aberasten gaitu, eta horri hizkuntza komun bat eman behar zaio, guztiok helburu berdinen pean artikulatu eta borrokatzeko.

Hizkuntza komun bat, baina ez bakarra. Tentsio horretan,

solasaldi batean honakoa galdetzen zenuen: «Nola eraiki aniztasunaren diskurtso eta praktika Euskal Herritik?». Hori nola lurreratu daiteke?

Adibide baten bidez azalduko dut: zu sartzen zara liburudenda batean eta baduzu “literatura vasca”, eta gero duzu filosofia, zientzia... Zein dago desagertua? Espainola. Eta desagertua dagoena da normala dena, diferentziak kudeatzen dituen.

Esango nuke gaur egungo gizartearen aniztasuna izendatzekoak neutraltasuna ematen dizula; zu desagertu egiten zara. Munduko Kopan justu kontrakoa gertatzen da, baina bestela identitate hegemonikoa beti dago desagertuta, besteak dira diferenteak. Eta uste dut hor beste korapilo bat datorrela guretzako herri bezala: aber-

tzaletasuna ala abertzaletasunak? Gaur egungo munduan posible da nazio-estatu berdin eta uniforme bat eraikitzea? Barruan diferentziak badaude, zeintzuk dira horiek? Diferentzia horiek identitate bat sortu beharko lukete, baina ez besteek sortutakoak, baizik eta gureak, txapel komun baten pean.

Nafarroak badu bere zera espezifikoa. Eta honekin zalantza daukat, baina ez dakit ez ote dugun Euskadi hartu behar eta ez ote diogun Euskal Herriaren barruan beste esanahi bat eman behar. Euskadi izango da hiru herrialdeentzako? Bale, baina Euskal Herriaren barruko erregio bezala; eta Nafarroa beste bat, eta Ipar Euskal Herria beste bat. Jakina, sare eta sinbolo komunekin –hau probokazio bat da, ze hau ez daki-

gu nola egin behar den, baina nik aipatzen dudanean diferentziarena hortik aipatzen dut: nazio konfederal bat–.

Ez da operazio teoriko bat, ze hori gauzatzeko tresna instituzional eta materialak behar dituzu, baina hori egin egin behar da. Ez da sortuko errealitate sozial bat momentu batean, non, halako jauzi baten bidez, estatu konfederal bat bihurtuko den. Sortzen hasi behar gara. Eta jada badago, e, ze zu nafarra izan zaitezke eta euskalduna, baina badaude nafar batzuk ez direnak. Lortu behar dugu horiek esatea: «Ni, nafar bezala, hobeto sentitzen naiz Euskal Herriaren txapelaren pean Espainiarenean baino. Identitate partekatu honetan beste horretan baino identifikatuago eta errespetatuago sentitzen naiz».





hik jai eta nik lan **NAIA BASTERRA** UDALEKUETAKO BEGIRALEA

«Umeak gustatzen zaizkion edonork egiteko moduko lana da, baina pazientzia behar da»



A sko dira, geroz eta gehiago, ikasturtea bukatutakoan udalekuetan ibiltzen diren umeak, dela gurasoek lanean jarraitu behar dutelako eta ezin dituztelako artatu, dela etxean aspertu egiten direlako. Haur horientzako jolasak, txangoak eta denetariko jarduerak antolatzen dituzte begiraleek; horietako bat da Naia Basterra zornotzarra.

Nola hasi zinen lan honetan?
Txikitan beti egon izan naiz udalekuetan eta hor ikusten nituen begiraleak; lau aste baino ez dituztela ematen lanean ikusten nuen, udan bakarrik eta norberaren herrian. Eta batxilergora heltzean aukera eman zidaten monitoretza ikastaroa egin eta titulua ateratzeko.

Gainera, etxean ere animatu ninduten, amak ere egin zuelako lan hau eta polita delako. Orduan, titulua atera nuen, praktikak egin nituen eta gero hasi nintzen udalekuetan lanean. Berez, nire ikasketekin ez du zerikusirik, baina gustura ari naiz.

Aurtengoa laugarren urtea da. Praktikak amaitu eta jarraian hasi nintzen lanean. Normalean, udan baino ez dut lan hau egiten.

Niretzat, lan hau behin-behinekoa da. Udan lan egiten dut

Haurrentzako entretenimendu eta guraso askorentzako ezinbesteko baliabide izaten dira opor sasoian udalekuak. Bertan lanean aritzen den begiraleetako batekin hitz egin du GAUR8k, lanaren alde onez eta ez horren onez.

Nerea LAUZIRIKA

urtean zehar dirua izateko. Baina nire ikasketekin lotutako lana bilatzea da asmoa.

Zer da lan honetatik gehien gustatzen zaizuna?
Umeekin lan egitea. Horrez gain, lan honek aukera ematen du lana eta aisialdia bateratzeko. Izan ere, lana, lana da, baina, umeekin ondo pasatzen baduzu, disfrutatzen da eta konpentsatzen du.

Udan lan egitea aukeratzen dut libreen nagoen momentua delako. Sasoi honetan ez dut ikasi behar eta ez daukat beste ardurarik, orduan egin dezaket. Gainera, hilabete hauetan entretenituta egoteko modu bat ere bada.

Lagun gehienak oporretan egongo dira. Ez al dizute inbidiarik ematen?
Bai, apur bat bai, ez gara orain gezurretan hasiko. Eguraldi ona egiten duenean edo planak egiten dituztenean gu





ezin izaten gara joan edo berandu heltzen gara. Azkenean, hori da duen alde txarra. Hala ere, saiatzen gara arratsaldeetan planak egiten. Hori da honek daukan alderik txarrena, lagunak oportetan daudela eta libre daudela eta zu ez. Gainera, daukagun ordutegiarekin formal ibili behar dugu, ezin dugu aurreko egunean parrandarik bota, gero hemen eman behar dugulako goiz

osoa umeeekin eta gogorra egiten da bestela.

Zer-nolako baldintzak dituzue udal udalekuetako begiraleek?

Kontratatu enpresa batek egiten gaitu, baina udaletxeak dituen lan poltsetatik. Enpresa arduratzen da langileak hautatzeaz, hortik aurrera udaletxeak kudeatzen du. Gustura ari gara lanean, koordinatzaileok zein begira-

Naia Basterra, udalekuetan erabiltzen duten Larrea eskolako jolastokian.
Aritz LOIOLA | FOKU

leok elkar ezagutzen dugu eta harreman ona daukagu, baita enpresarekin ere. Egia esan, ondo ordaindutako lana da.

Izaten duzue aukera denbora libreaz gozatzeko?

Hasieran kostatzen da, baina asteek aurrera egin ahala ikasten duzu daukazun denbora librea ondo antolatzen. Daukan alde ona da arratsaldeak libre dauzkagula, orduan aprobetxatu dezakezu hondartzara joateko, adibidez.

Jaiak datoze-nean gehiago kostatzen da, herriko jaiak izanda ere guk lanera joan behar izaten dugulako. Aurreko egunean parranda egin ez gero, hurrengo egunean 08.00etan edo 09.00etan nekatuta agertuko zara lanera, baina, bueno, hori azken astea baino ez da izaten eta aguantatzen dugu.

Zer prestakuntza mota behar izaten da zuen lana egiteko?

Monitoretza ikastaroa bi bloke dira, bata teorikoa eta bes-

tea praktikoa. Hor ikasten dugu zein jolas egin ditzakegun umeeekin, nola eraman haiekin harremana... Azterketak gaitututakoan praktikak egiten ditugu eta hor bai ikusten duzu eta ikasten duzu benetan nolakoa den lan hau eta zer den egin behar duzuna.

Hala ere, umeak gustatzen zaizkion edonork egiteko moduko lana da. Ez da irakasle lana bezalakoa, guk haiekin jolastu eta haiekin egotea da egiten duguna, esker oneko zeregina da. Baina, ezinbestekoa da pazientzia izatea. Kontziente izan behar duzu ez duzula oportetan egongo bazina egingo zenukeen guztia egingo, hori bai.

Gurasoekin beste kontu bat da. Askok ulertzen dute ez garela denera heltzen eta gero badaude beste batzuk ez digutenak lana batera errazten, ez dutelako txangoetarako arropa egokia ekartzen edo horrelako kontuak.

Umeeekin harreman berezia sortzen al da?

Bai. Zornotzakoak bertakoak dira gehienak eta begiraleok ere bai, beraz, urtean zehar ere elkar ikusten dugu kaleetik, eta, gehien-gehienak urtero etortzen direnez udalekuetara, harreman hori mantendu egiten da. Asko gerturatzen zaizkigu kaletik ikusten gaituztenean, eta hori polita da.





Josune PEREZ
Psikologoa



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus

Barne munduaren ezagutza euskararen bitartez Euskal Herriko hegoaldean

Jokoak giza abilezia, emozioen kudeaketa, mugimendua eta ikaskuntza gaitasunak garatzen eta indartzen ditu. Norbanakoei bai barne bai kanpo munduarekin erlazionatzeko tresna ezinbestekoak irakatsiz.

Euskararen irakaskuntza, ikaskuntza eta bideragarritasuna are zailagoa da Euskal Herriko hegoaldean, euskara hizkuntza gutxietsia den lurraldean.

Zona horretako biztanleek euren egunerokotasunean euskara erabiltzeko oztopo ugari dituztenez, hezkuntza esparrutik kanpo eta gizarte-mailan lan egin dezaten, emoziteka saioak proposatzen dira.

Emoziteka saioek emozioen kudeaketa dute helburu, euskara eta jokoak lan tresnatzat erabiliz. Jokoak tresna pedagogiko ezinbestekoak dira, bai hizkuntza bai norbanakoaren barne-mundua ikuspegi positiboago batetik ulertzeko aukera eskainiz eta bereganatutako ezagutzak denbora gehiagoz mantenduz.

Rol-jokoek, haurrei eta nerabeei euren barne-mundua beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera ematen diete, taldean erlazionatuz, entzute aktiboa landuz, eta enpatiaren eta parekotasunaren balioa sustatuz.

Emozioak eta gatazkak ezagutu, ulertu eta kudeatu ahal izateko, ekin-tzok autoestimua eta konfiantza bideratzen dituzte giro positiboak sortuz, estresa eta antsietatea arinduz, eta, ondorioz, komunikazio eta ikaskuntza kolaboratzailea bideratuz.

Joko sinbolikoak hizkuntza bereganatzeko garaian izugarrizko garrantzia du. Pertsonak, ingurunearekin elkar eragitean, hitz berriak ikasi eta agertoki berriak eraikitzen dituzte euren

ezagutzak areagotuz eta era naturalagoan barneratuz.

Jokoek, jakin-mina estimulatuz, giroa lasaitu eta ikaskuntza berriek sortutako presioak ekiditen dituzte. Era berean, akatsek garrantzia galtzen dute, saiakuntza gehiago egitera gonbidatuz, bai eta, hizkuntzari dagokionez, egitura desberdinak erabili eta ikastera.

Ipuin kontaketa barne mundua birmoldatzen du. Kontakizuna ingurukoekin partekatzean, gertaera berrin baten aurrean ikuspuntu eta bizipen desberdinak daudela ikasten da, eta horrek bizitzarekiko ikuspegia aberasten eta zabaltzen du, besteak entzunez, ulertuz eta onartuz.

Eskulanek emozioak kanporatzen dituzte eta norbanakoa berreraikitzen dute. Sarritan, ezinezkoa da guztiz hautsita dagoenari hitzen bidez gauzak ulertaraztea. Aldiz, haserrea kan-

poratzeko kafea egiteko erabiltzen diren kazotxo batzuk egurrezko mailu batez kolpatzeko eskatzen badiogu, indarrez kolpatuko ditu, leun utzi arte.

Behin kazotxo leunduta, arazoak taldean, ikuspegi ezberdin batetik ikusi, aztertu eta konpon daitezkeela jakitera eman (piezatxo erditik tolestuz). Azkenik, partekatzeak ongizatea dakarrela azaldu (kazotxoaren barrena zabalduz).

Azalpena eta gero, deuseztatutako kazotxotik lore-hosto polit bat eratu dela ikusten badu, errazago barnertuko du arazoak besteekin partekatzeak onurak dakartzala.

Eskulana (lore oso bat) etxera eramango duenez, ikusten duen bakoitzean ikasitakoa birbiziko du.

Sormena, jakin-mina, baikortasuna eta aurrera egiteko gogoak gizakion tresna baliagarrienetarikoa dira.



Eskulanek emozioak kanporatu eta norbera berreraikitzen dute. Jagoba MANTEROLA | FOKU

Ispilu jolasa

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Denbora luzea ematen dugu gure esku ez dagoena (bertzeak) aldatzen saiatzen, baina bitartean ez dugu gure esku dagoena (gu) aldatzeko pausorik ematen. Libre izatera kondenatuta gaudela erran zuen Sartrek. Beti hartzen dugu erabaki bat. Eta preso bizitzeko ere erabiltzen ahal dugu gure askatasuna.

Partekatzen dugun mundu zabal honen barrenean, norberak bere mundutxo du, bere bizipen, irudi, amets, beldur, sinesmen eta ikasketekin. Eta topatzen garenean brilloa ematen diogu elkarri, bertzeekin harremanetan ikasten dugu eta eraikitzen dugu gure nor-tasun eta barne mundu aberatsa.

Ispilu jolas horretan, ezinegona sortzen diguten egoerek gure zirrikituak non dauden seinalatzen digute, eta gure irekidura luze eta estu horiek, oraindik ikusi ez ditugun arrakala edo pitzadura horiek, gure barnera sartzeko, ikasteko eta hobetzeko bidea erakusten digute.

Haurrak ordu bat, bi, hiru... darama legar magikoarekin jostetan. Playmobileko pertsonaiak tsunami handi batek harrrapatu ditu. Eskerrak urpekari abilak salbatu dituen. Baina ez dago atsedenek, bahiketa bat gertatu da eta lagunek ongi antolatu beharko dute bahitua onik aterako bada. Aitatxi ondoan dago eta tarte-ka zerbait egiteko eskatzen dio umeak, bere mundura gonbidatuz. Ha-

la, bi munduk bat egiten dutenean, fantasia handitu, esajeratu eta irri ozenak sortzen dira.

Egia da, haurraren mundua miresgarria da. Azalak ere ez du beti gaztaroko brillorik. Baina Elvira Sastrek idatzi bezala, urteak betetzean ez dugu zertan itzali; aski dugu inguruko argiaz elikatzea eta gu ere bertzeentzat argia izatea.

Bertzeen ispiluan dirudiguna eta garena ez dira maiz bat etortzen. Gure barne ispilua ere okertzen da eta gaizkiulertuak sortzen ditu. Bertzeengan proiektatzen dugu aunitzetan, norberarena ikustea baino errazagoa egiten zai-gulako, baina zein dira gure zirrikituak? Zertan ari gara gu? •

Kuraia maitasunari!

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Es la historia de un amor» Guda-dalupe Pinedaren bertsio zirra-ragarria aurikularretatik burmuinera goxo sartzen ari zaidala sentitzen dut nota bakoitzak ene sabeleko beroa hauspotzen duela tximiniako sugarrari egur zatia botatzean nola eta txinparta goriak jario etengabea leher-tzen zaizkit sumendi-ahotik kanpora.

Maitasuna maitasuna da, eta maitasun guztiak ezberdinak dira. Espazioa eta denbora eman behar zaio, izango bada. Arnasa eman behar zaio, biziko bada, alegia, bikotekide bakoitzak bere aldetik bizitzen ere jakin behar du bere eremuko lagun eta ezagunekin, eta familiarekin. Gainontzean, arriskua dago

harremana itotzeko edo mendeko bihurtzeko. Maitasun harremanak sarritan ez dauka guztia eskura, muga artean bizirauten du denborak eta espazioak bere egiteko borrokan, izango diren es-perantzan.

Zilegi bada bikote harremana amaitzea eta beste berri bat hastea, zilegi izango al da hautsitako harremana amaitzea! Bikotea mendekotasun egoera larrian duenarentzat zilegi ote da maitasun harreman berria eraikitzea nahiz zaintzak mugak sortu, nahiz denbora eta espazio estuetan moldatu behar izan. Nik argi daukat, maitasun puruak ez du ezinezkorik, ez dago hormarik maitemina geratuko duenik, muga artean bizi

beharko badu ere, orain estu, gero estua-go. Iparra da galdu behar ez dena, dauka-zunari heldu eta ez daukazunarekin ez frustratu, nahiz, bai ahalegindu lortzen. Daukazunak betetzen zaituen da erabaki beharrekoa, hala bada joango baita handitzen, osatzen.

Ze gizarte litzateke hau bikotearen maitasuna bien eskuetan soilik ez bale-go.

Maite ditugun ingurukoak entzungo ditugu eta zainduko, baina gainontzeko horiek, harremanaren xehetasunen tuitik jakin gabe txutxu-mutxuka dabilen oro, guri bost!

Maitasunagatik adorea eta ekin bran-kara! Kuraia! •

{ analisia } **Mikel URDANGARIN IRASTORZA**

Espainol ez-nazionalista baten adierazpena (parodikoa, edo ez hainbeste)

Greba Orokorrean, Enplegu Publikoaren Legean, USaPeko azterketan, Munduko Kopan... sektore espainol ustez ez-nazionalistek bete-betean heldu diote borroka ideologikoari. Artikulu ironiko honen bidez haien kontraesanak biluzten saiatu gara.

Mamu zahar-berri batek zeharkatzen du Europa: nazionalismoak. Ustez polo ezberdinetatik bada ere, «lehentasun nazionalak» hauspoa hartzen ari dira han eta hemen. Euskal Herrian aspalditik geunden gaitz horrek kutsatuta, baina azken hilabeteetan berriz indartu egin da: beste langileekiko bereizketa bilatzen zuen greba nazionalista, Enplegu Publikoaren Lege segregatzailea, Unibertsitatera Sartzeko Probako zero diskriminatzaileak, Munduko Kopa bake-bakean ikusteko ezina... Hark esaten zuen beza-la, inork ez zidan esan espainola izatea zein nekeza den. Horren aurrean, eusko labela

kenduko didaten beldurrak gaintitu, eta zenbait puntu argitzea erabaki dut:


- Ni, berez, Espainiaren alde ere ez nago. Ni euskaldunen alde nago. Eta euskaldunek Espainiarekin jokatzeko dutelako babesten dut Espainia (eta ez Didier Deschampsen Frantzia edo Iñaki Williamsen Ghana).
- Sekulako auzo-lotsa sentiarazi dit Rajoyk. Nazio espainoleko kide izateko erabakigarria ez da abizena, jatorria edo azal kolorea, baizik eta Espainiari ekarpena egiteko borondatea eta nahia (nahia apal xamarra bada, NANA). Espainia hori maite dutenena da. Eta maite ez dutenena ere bai, familia handi bat baikara, banaezina

(alegia, familia bat garela, baina osatzen dutenen borondatearen gaintik dagoena... Bestela esanda, familia moderno eta mestizo bat, baina sakratua, dibortziorako eskubiderik gabe... *En fin*, ulertzen da).

- Inklusibotasunaren erakusle, edozein dela ere abizena, jatorria edo azal kolorea, jokalaria guztiek dute Espainiako selekzioarekin jokatzeko aukera. Pentsa, horrenbestekoa da aukera, ez jokatzeko aukera ez dela existitu ere egiten: ohore handia delako... eta, egiari zor, bestela 2-5 urtez inhabilitatu ditzaketelako. Badakizue, badaezpada, inori futbola eta politika nahastea okurritu ez dakion.
- Ni ez naiz nazionalista, ni konstituzionalista naiz. Eta Konstituzioak argi jartzen du: «Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da». A, eta honakoa: «Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute».
- Eskubideen alde nagoelako nago erabakitzeko eskubidearen kontra. Eskubidea, zer eta erabakitzeko? Bozkatzeko? Ha-

lakorik... Zer izango da hurrengo, burujabetza, lurraldetasuna... independentzia?! Zer nahi duzue, XIX. mendera itzuli?! («Indar Armatuek Espainiaren 'subiranotasuna' eta 'independentzia' bermatzeko eta haren 'lurralde-osotasuna' defendatzeko eginkizuna dute»... ejem, ejem).

- Muga guztien kontra nago. Horregatik, ez dut sekula parte hartuko Hendaia-aren eta Iru-
nen arteko muga desagiteko manifestazioan.
- «Lehentasun nazionala» ez, lehentasun soziala da gurea:





Selekzio espainoleko jokalaria, Cibelesen (Madril) egindako ospakizunetan. Ekitaldiko leloa argia izan zen: «Munduko Erregeak». Oscar J. BARROSO | AFP7, EURO-PA PRESS BIDEZ

da (fisika, matematika, biologia, historia, gaztelera eta beste ikasgai guztietan izan ezik).

- Nazionalismoa bidaiatuz sendatzen da. Uztailaren 14an Frantziako desfile militar internazionala ikusiz... Edo urriaren 12an Kolonek egindako bidaia kosmopolita gogoratuz.

- Azken batean, errespetua baino ez dugu eskatzen. Munduko Kopan bakoitzak bere taldearen gola lasai ospatu ahal izatea; guk gurearena eta zuek zuenarena... Alegia, bakoitzak beretik, denok Espainiarena.

Izan ere, zintzoak izanda, berez-berez... nork ez du espainola izatea ospatu nahi? Erresuminduek, autoritarioek... Ba horiek, izorra daitezela, espainolak baitira! Hori da gure destino unibertsala, eta gustatu ala ez, gustatu egin behar da. ¡Viva España!

Edo, nahiago baduzue, zuen erara: Aurrera, Espainia!

Ikusten ze irekiak garen? Gurea ez baita nazionalismoa, gurea sentimendu bat da, nazio supra-nazional bat: «munduko Errege» dena, beste behin «mundua konkistatu duena»... Eta ondorioz, munduko hiritar egiten gaituena.

aberatsei lehentasunez ematen zaie nazionalitate espainola; paperik gabekoen seme-alabetako askok, aldiz, ez dute hiritartasun espainolik, nahiz eta Espainian jaio. «*lure sanguinis*» esaten diogu, Espainian nazionalitatea odolez transmititzen dela esatea ez baita oso itxurosoa.

Hala ere, lasai, horiek nahi-ko erraz lortzen dute hiritartasuna. Askok espainoltasuna frogatzeko azterketa etniko (barka, zibiko) bat baino ez dute gaingitu behar, honakoa bezain galdera unibertsalekin: «¿Qué acontecimiento popular tiene lugar en

Buñol (Valencia) el último miércoles de agosto?». Txa-txa-txa: «*La Tomatina!*». Ji, ji, ji, dibertigarria eta guzti da.

- Eta zu bitartean haserre? Horrelako kontuak umorez hartu behar dira: “Ocho apellidos vascos”, “Ocho apellidos catalanes”, *Ocho apellidos espa... espa... espaciales!*

- Identitateen aurrean benetan axola duten gauzak jarri behar dira erdigunean. Adibidez, Frantzia (eta Ipar Euskal Herria) 1.823 euroko gutxieneko soldata izatea,

zoragarri; Hego Euskal Herria, aldiz, 1.500 eurokoa beharrean 1.200ekoa izan behar da, benetan axola duena langileriaren (hots, Espainiaren) batasuna baita.

- Enplegu Publikorako Legeek ez dute saritu behar jatorria, baizik eta formazioa eta meritua. Esaterako, Espainia osoan funtzionario izateko gaztelera jakitea beharrezkoa da, baina, nazionalitate espainola izanez gero, ez da gaztelaniaren jakintza frogatu behar; nazionalitate espainola ez dutenek, aldiz, bai. Euskararekin, eskatzen den ka-

suetan, denek ziurtatu behar dute jakintza, euskara ama hizkuntza izan edo ez. Hau da, gaztelarekin nazionalitate espainola dutenak saritzen dira; euskararekin formazioa. Hortaz, gaztelaren eskakizunak diskrimina... *Oh wait*, argudioz nahastu naiz.

- Hizkuntza aniztasuna oso garrantzitsua da. Hain da garrantzitsua, non bertako ikasleei bertako hizkuntza ukatzeko aukera bermatu behar zaien ikastetxeei eta gurasoei. Ez ikasteko eskubidea, suspenditua izateko debekua; hori bezain sinplea

{ *osasun leihoa* }

Bost urte bete dira Espainiako Estatuan eutanasia legeztatu zenetik, bost urte, gurean uztailaren 23an lehen eutanasia egin zenetik. Mobilizazioz, eztabaida etiko eta samin kolektiboz jositako hamarkadetako borrokaren ostean iritsi zen legea. Ramon Sampeder, Maribel Tellaetxea, edota Maria Jose Carrasco eta Angel Hernandezen izenak datoz memoria-ra; DMD bezalako gizarte-eragileen borroka amaigabearen lorpena.

Gizarte-konkisten inguruan, ordea, ilusio optiko kolektibo eta arriskutsu bat dugu: eskubide bat Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratze hutsarekin, betirako babestuta dagoela sinestea. Eskubide zibilak, sozialak eta giza eskubideak ez dira granitozko monumentuak, kristalezko eraikuntzak dira, etengabeko seismo erreakzionarioen eraginpean dagoen lurralde batean. Sinadura soil batekin, epai batekin edota aldaketa kultural batekin desegin edo larriki moztu daitezkeen lorpen hauskorak dira. Atzera

pausuen etorkizun distopikoa jada ez da mehatxu bat, ate joka dagoen errealitate bat baizik, bestela begiratu Madrilera eta *nasciturus*-aren inguruko aferara...

LEGEA, LUBAKIAREN HASIERA?

Lege honek oinarrizko eskubide bat finkatu zuen, duintasunaren, askatasunaren eta autonomia pertsonalaren printzipio konstituzionalei estuki lotutakoa. Bizitzaren amaiera norbana-koaren azken egintza subiranoa izateko aukera ahalbideratu zuen, eta heldutasun demokratikoko mugarri gisa txalotu genuen.

Urte hauetan pilatutako esperientziak, aitzitik, erakutsi digu legea ez dela bidearen amaiera, lubaki baten hasiera baizik. Gaur egun, eskubide hau setio isil baina suntsitzaile baten pean dago, fronte anitzetatik edukiz husteko mehatxu pean: prozesuaren judizializazio kezkarria eta mesfidantza kliniko nahiz jurisprudenzial sakona, besteak beste.

Izan ere, legearen espirituari emandako kolperik gogorrena ez da parla-



Itsaso BENGOTXEA Medikuntzan doktorea. Zainketa aringarrietako eta etxeko ospitalizazioko medikua

Kristalezko eskubideak seismo politikoen garaian

mentutik etorri, auzitegietatik baizik. Noelia Castilloren kasuaren harira, Auzitegi Gorenak berretsi berri du familia-lotura duten pertsonen eutanasia prozesu bati helegitea jartzeko eskubidea dutela, “hirugarrenen interes legitimoa” izenburupean. Prozesuaren judizializazioak gaixoarene bizitza itxaronaldi agoniko batean geldiarazten du, ziurgabeta-sunez beteta, bere sufrimenduaren kronometroak gupidarik gabe aurrera jarraitzen duen bitartean.

Erabaki judizial hori erregresio paternalista eta kezkarria da. Eutanasia ez da erabaki familiarra edo adostasun komunitarioa. Jasanezina den sufrimenduaren aurrean, pertsona heldu eta eskudun batek duen autonomiaren azken adierazpen intimoa da. Nola liteke maite dugun pertsona baten gailerak sortzen digun oinazeak, pertsona horrek bere sufrimendua ekiditeko duen tresna bahitzea? Sorrentinoren “La Grazia” pelikulako galdera bota beharko genuke airera gai honetan: norenak dira gure egunak?

BIZITZA BIOLOGIKOA BAINA EZ BIOGRAFIKOA

Noeliaren Castillo gazte katalanaren kasuak, eztabaidaren muinean dagoen beste errealitate deseroso bat azaleratu du: pairamendu kroniko baten ondorioz egindako eskaera zen Noeliarena. Eta hori ez da kontu makala. Gizarte gisa, “hobeto” edo errazago ulertzzen ditugu bizitza arriskuan duten gaixoen eskaerak, edota denbora gutxi barru hilko diren pertsonen heriotza-eskaerak. Aldiz, esperoan eta gizartearen epaipean geratzen dira aurretik urteetako bizi-itxaropen luzea izan dezaketen eskatzaileak, bizitza biologikoa-ren mantentzea lehenesten dugulako, atzean inolako bizi-biografiarik ez dagoenean ere.



Nork erabaki behar du dagoeneko nahikoa sufritu ote duen pertsona batek? GETTY IMAGES

Erresistentzia horren muinean gure kultura kato-likoaren aztarna sakonak daude. Mendeetan zehar, gure arbasoei sufrimenduaren aurreko erresilientzia itsua exijitu zaie, min jasanezin hori pairatzearen truke hurrengo “bizitzan” ordain jainkotiar bat, zeruko saria, izango zutela aginduz. Sufrimendua bera sakralizatu egin da, gizakia makurtzeko tresna gisa. Zentzurik gabeko min horren goraipamenak Auschwitzeko atarian zegoen «*Arbeit macht frei*» (Lanak aske egingo zaitu) esaldi makabro hartara garamatza zuzenean: ankerkeria eta mendekotasuna bertute, autosuperaziorako aukera eta askapen gisa mozorrotzea, bidean norbanakoaren duintasuna erabat birrintzen bada ere. Nork erabaki behar du dagoeneko nahikoa sufritu duan? Nork erabaki behar du saria ala zigorra den nire bizitza biologikoa mantentzea?

Noeliaren kasuaren harira, iraganeko paternalismo moralizatzaile horren oihartzunek gaur egungo telebista-platoak blaitu dituzte. Iritzi publiko voyeurista desegituratutako familia baten miseriak disekezionatuz. Tertuliano ugarik, gaztearen “burua babesteko” aitzakiarekin, pazientearen subiranotasun existentziala infantilizatu eta zalantzan jarri dute. Bihozgabekeria onartezina, moralismo mediatikoa. Gure begiradaren distortsioan dago arazoa, enpatia gaixotasunaren izenaren edota adinaren arabera neurtzen duen iragazki sozial horretan: Noeliak 50 urte izan balitu, edo minbizi bat izango balu, iritzi berdinak entzungo genituzke? Emakumea, gaztea, bortxakeria eta osasun mentala, kirats patriarkala bere osotasunean...

HORMA PSIKIATRIKOA ETA ANAKRONISMO MEDIKOA

Hirugarren erresistentzia-fronte handia buru-nahasmenduak dituzten pertsonenganako mesfidantzan oinarritzen da. Konstituzio Auzitegiaren epaiek legearen konstituzionaltasuna baliozkotu badute ere, funts juridikoak kortse eskusibo gisa jotzen du: “pairamenak” jatorri somatikoa edo fisikoa izan behar duela dio (nahiz eta lotutako sufri-

Bost urte dira Estatu espainiarren eutanasia legeztatu zenetik. Bizitzaren amaiera norbanakoaren azken egintza subiranoa izateko aukera ahalbideratu zuen, eta heldutasun demokratikoko mugarri gisa txalotu genuen

Eutanasia ez da erabaki familiarra edo adostasun komunitarioa. Jasanezina den sufrimenduaren aurrean, pertsona heldu eta eskudun batek duen autonomiaren azken adierazpen intimoa da



Gizarte lorpen garrantzitsua da eutanasiarena, zaindu beharrekoa. Marisol RAMÍREZ | FOKU

mendua psikikoa izan), eta, horretan oinarrituta, batzuentzat patologia psikiatriko hutsak errotik kanpo uzten dituen horma bat eraiki da.

Fisikoaren eta mentalaren arteko bereizketa zorrotz hori anakronismo medikoa eta maltzurkeria etikoa da. Giza sufrimenduarekin hurbiletik lan egin dugunok badakigu buruko gaixotasun larri askok min sakona, etengabea eta onartezina eragiten dutela. Min hori edozein patologia onkologikorekin edo neurodegeneratiborekin guztiz parekagarria da, eta, batzuetan, baita handiagoa ere. Hiltzeko lagun-

tza ukatzea gaixotasunaren jatorrian soilik oinarrituta, eta ez pazientearen sufrimenduaren intentsitatean, diskriminazio instituzional nabarmena da.

Errezeloak gaixo mentalaren erabakitzeko ahalmenik ezaren argudioan ezkutatu ohi dira. Bistan da, testuinguru horietan, ebaluazio zorrotzak eta diziplina anitzekoak beharrezkoak direla. Baina literatura zientifikoak erakusten du nahasmendu larriak dituzten paziente askok beren osasunari eta bizitzari buruzko erabaki informatuak hartzeko gaitasuna dutela. Kontrakoa esatea pertsona horien zuzenbide-subjektu izaera baliogabetzen duen orokortze bidegabean eta estigmatizatzailean erortzea da. Paternalista.

POSTA KODEAREN LOTERIA

Goi mailako eztabaida juridikoetatik harago, legea egunero aplikatzeak autokritika sakona eskatzen duten josturak azaleratzen ditu. Beste erkidego batzuetan gertatzen ari dena ikustea besterik ez dago hasieran aipatutako seismo suntsitzailea gure begien aurrean gertatzen ari dela jabetzeko: eskubidea eskatzailearen posta kodearen mende dago erabat.

Zerbait kulturala ere egon daiteke egungo egoeraren atzean; agian, euskaldunon eta katalanen kasuan, autodeterminazio-nahi sakon horrek, geure patuaren jabe izateko grina areagotzen du. Baina auzia ez da horretara mugatzen. Opakutasun burokratikoak, informazio-hutsuneek eta irizpide batasun ezak muga ikusezin bat sortu dute, paziente poliki-poliki higatzen duena eta herritarrak babesik gabe uzten dituen uneen uneko eskualdeko gobernuaren borondate politikoaren aurrean.

Askatasuna ez da graziazko egoera iraunkor bat; eguneroko erresistentzia-ariketa bat da. Ez dezagun onartu gure azken egintza subiranoa epaitegi baten, moral erlijioso baten edo gure posta kodearen menpe geratzea. Bizitzaren amaieran, zentzua eta duintasuna ez dira galtzen; defendatu egiten dira. Duintasunez hiltzea askatasunaren azken gotorlekua baita.



Nagore BARRENA ORUECHEBARRIA

Donostiako EHUko Informatika fakultateko irakasle eta ikertzailea

Milioka zelula, ikusiezina agerian

Zelulen portaera ulertzea biologiaren erronka nagusietako bat da. Horretarako, biologoek eta osasun-zientzietako ikertzaileek mikroskopia erabiltzen dute, irudi horiek ez baitute soilik zelula bat erakusten. Zelulen antolaketa, haien arteko harremanak, proteinen kokapena edo ehunen egitura ikus daitezke. Informazio hori ustiatzeko, zelulak identifikatu, zenbatu, neurtu eta denboran zehar izaten dituzten aldaketak aztertu behar dira.

Azken urteotan mikroskopia-teknikek jauzi handia egin dute. Bereizmen handiko eta hiru dimentsioko irudiak sortzea ohikoa bihurtu da. Horrek ikerketarako aukera berriak ireki ditu, baina baita datu-kopuru ikaragarria ere.

Testuinguru horretan hartu dute indarra ikusmen artifizialak eta ikasketa sakoneko ereduek. Sistema horiek gizakiak eskuz egingo lituzkeen lanak automatizatzen dituzte, eta irudietan agertzen diren patroi konplexuak identifikatzeko gai dira. Horretarako, aurrez bildutako irudi datu multzoekin entrenatutako neurona sareak erabiltzen dira; behin ikasita, aurretik ikusi gabeko irudietan ere antzeko egiturak automatikoki ezagutzen dituzte.

Hala ere, teknika horiek erabiltzeak datuak prestatzea, ereduak entrenatzea eta kalkulu-ahalmen handiko azpiegiturak erabiltzea eskatzen du. Horregatik, ez dira beti biologoen eskura egoten.

Hain zuzen ere, behar horri erantzuteko sortu da BiaPy1 (BiaPy: accessible deep learning for bioimages), bioirudien analisisian ikusmen artifiziala eta ikasketa sakonaren erabilera

erraztea helburu duen plataforma irekia. Bertan eskaintzen diren metodoak ikusmen artifizialeko ikerketalanen emaitzak dira, eta horien garapenean parte hartzen dute, besteak beste, EHUko Informatika Fakultateko CVPD1 ikerketa taldeko ikertzaileek. Ikerketa horiek, ordea, ez dira argitalpen zientifikoetan soilik geratzen, BiaPyren bidez tresna erabilgarri bihurtzen dira, biologoek eta medikuek adimen artifizialean aditu izan gabe erabili ditzaten. Horrela, ikerketa prozesuan sortutako ezagutza komunitate zientifiko osoaren eskura jartzen da.

BiaPy lankidetzaren baten emaitza da, eta haren garapenean aipatutako CVPD ikerketa taldea ez dago baka-

rrik, Biofisika Ikerketa Institutuko, Ikerbasqueko eta DIPCKo ikertzaileek bide lagun izan ohi dituzte. Horrez gain, Euskal Herritik kanpo ere, beste erakunde batzuetako ikertzaileek parte hartu dute lankidetzan, Sevillako Unibertsitateko, Boston Collegeko eta Parisko Ecole Polytechniqueko ikertzaileek, adibidez.


Mikroskopia gero eta irudi gehiago sortzen dituzten heinean, benetako erronka irudi horiek eza gutza bihurtzea izango da. BiaPy bezalako plataformek erakusten dute adimen artifizialaren etorkizuna ez dagoela soilik algoritmo hobeak garatzean, baizik eta algoritmo horiek ikertzaile gehiagoren eskura jartzean. •



Azken urteotan mikroskopia teknikek jauzi handia eman dute. GETTY IMAGES

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



PERTURREN ARGAZKI MOLDATUA

Duela urte batzuk, Baionako “Enbata” aldizkariaren argazki-fondoen berrikuspen batean, garai hartako dokumentu grafiko ugariren artean, Eduardo Moreno Bergaretxe, *Pertur*, ETApn-ko kidearen argazki txiki bat aurkitu nuen. Balio historiko nabarmeneko irudia zen, eta arreta ematen zuen moldaketa berezi bat zeukalako. Bere ohiko aurpegiaren gainean, bizar bat marraztuta ageri zen, une horretan bere fisionomia nolakoa izango zen simulatzen zuen eskuz egindako trazuak erantsiz. Aldatutako irudi hura ez zen artxiboko kuriositate soil, 1976ko uztailaren 23an desagertu ondoren Ipar Euskal Herrian argitaratutako hainbat argitalpenetan modu aktiboan erabili zen, horien artean modu herrikoian argitaratzen zen “Askatasuna” aldizkarian. Ukituen egi-lea ezezaguna da oraindik, baina badirudi urte haietan ateratako jatorrizko argazkia Josean Mujika Arregi errefuxiatuak egin zuela.

naiz:



**Eguneko albisterik
garrantzitsuenak
arratsaldero jaso nahi dituzu?**

Eskaneatu QR kodea
eta jaso buletina



naiz: buletina

Eguneko garrantzitsuena hautatu eta arratsaldero bidaliko dizugu

